



## ***Haur Poesia***

Hizkuntz eta kultura bakoitzak bere hitz jolas eta kantuak sortzen ditu; hauek hizkuntza bakoitzaren ezaugarriak mantentzen dituzte, hala nola, soinuak, doinua, azentuaren lekua. Baina aldi berean, kultura guztietako haur poesiek ezaugarri komuna dute: bitar erritmoa. Ezaugarri antropologiko bat da honako hau, dirudienez bihotzaren taupadadetan oinarritzen dena.

Jaio aurretik garatzen du haurrak entzumena, jaoitzen denerako ahots batzuk ezagutzen ditu, hainbat hilabetez kulunkatu duen erritmo bitarra ezagutzen duen bezalaxe. Erritmo hori lasaigarria suertatzen zaio, ezagutza bideak sortzen dizkio eta bere neurriko ulermena eta adierazpen bideak ekartzen dizkio.

Mundu osoko haur poesia aipatu dugun ideia horietan oinarritzen da: baita sehaska kantuak, eskuak trebatzeko altzo-jolasak edota lehenengo silabak eta hitzak osatzeko zirikatze ahaleginak ere. Haur kantu eta poesia herritarrak hizkuntzaren ezaugarriari loturik agertzen dira eta, aldi berean, haurren euren premien eta ezagupenaren adierazle gisa sortuak dira. Bestela esanda, haurren ahalmen eta plazeraren neurrira sortu ditu gizarteak: gozamenarekin batera, haurren bilakaeran lagungarri izan daitezten.

Poematxo eta kantu hauek zuzeneko transmisioa eskatzen dute, jolasak dira, haurren mugimenduz eta helduaren eraginez gauzatzen direnak. Partekatze horrek ahalbidetzen du aitzinean aipatu ditugun guztiak; honek ez du zer ikusirik multimedian azaltzen den ezerekin.

BULARRETIK MINTZORA egitasmoak euskal jolasak eta kantuak ikasteko baliabide batzuk sortu ditu: *“Bularretik Mintzora, poesia, kantuak eta ipuinak”* eta *“Sasi guztien gainetik”* liburuak, web gune honetan azaltzen direnak.